
**Enplegu gizarte
babes osagarria**

BGAEak Euskadin

EDIZIOA: Euskadiko Langile Komisioakeko
batzorde exekutiboa
2023ko martxo

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Pentsio Sistema Publikoaren eztabaida estatu markoan	6
3. Gizarte aurreikuspenaren hiru zutabeak	7
3.1 Pentsio Sistema Publikoa.	7
3.2 Gizarte aurreikuspen osagarria.	
4. Pentsio planak eta gizarte aurreikuspen osagarriko erakundeak	10
5. BGAEen euskarri legala	11
6. BGAEn kontzeptua eta ezaugarriak	12
7. Enplegu BGAEak. Erakunde preferenteak	13
8. Datuetan: Euskadin Gizarte aurreikuspen osagarria	14
9. Aurreikuspen sozial osagarriaria eta BGAEei buruzko eztabaida Euskadin	15
10. Ondorioak	17
<i>Ohar bibliografikoa</i>	18

1. Sarrera

Honako lan honen helburua gizarte babes sistemaren inguruko kontzeptu batzuk argitzea da, zehazki bat eta bi zutabeak: pentsio publikoak eta enpleguaren gizarte babes osagarria. Gainera, pentsio sistemaren inguruan eztabaida bideratu eta sindikatuaren perspektiba mugatu nahi du. Horregatik material hau Euskadiko CCOOko egitura ososari zuzentzen zaio, sindikatuaren jarrera ulertu eta helarazi ahal izateko, bestelako eremuetatik zabalduko mezu nahasiak dauden une honetan.

Lehenengo erreferentzia gure gizarte aurreikuspen sistema arautzen duen markoa ulertzeko Espainiako Konstituzioaren 41. artikulua da, I. tituluaren kokatua (“oinarrizko eskubide eta betebeharrak”), eta testuak dio “botere publikoek Gizarte Segurantzaren erregimen publikoa mantenduko dute herritar guztientzat premia egoeretan, bereziki langabezia kasuetan, laguntza eta gizarte prestazioak bermatzeko. Laguntza eta prestazio osagarriak libreak izango dira”.

Parrafo bakar batean jasotzen da gure gizarte babes sistemarako marko baten diseinua, hiru maila bereizten dituena: oinarrizko babes maila bat, izaera asistentzialekoa, bertan prestazio sanitarioak eta farmazeutikoak, gizarte-zerbitzuak, familiaren babesa eta prestazio eta sorospen ez-kontributiboak jasotzen dira (horregatik maila asistentziala); maila kontributibo edo profesionala, zenbait egoeretan, aktiboan egon bitartean jasotako soldadak ordezkatzeko errentak ematea helburu dueña; eta maila osagarri bat, borondatezkoa eta librekoa.

2. Pentsio Sistema Publikoaren eztabaida estatu markoan

Euskadiko CCOOrentzat, gizarte babes arloan lehen helburua beti da pensio sistemaren defentsa, definitutako baldintzekin, banaketa, elkartasuna, nahikoa eta jasangarria.

Hala ez balitz, Ongizate Esatatuaren oinarriko piezari zilegitasuna kentzen arituko ginateke, garrantzitsuena termino kuantitatiboetan, gastu handien kontsumitzen duena eta esanguratsuen herritarren ongizate terminoetan baita barne eskaerari egiten zaion ekarpenari dagokionez, pentsio sistema publikoa, banaketa sistema gisa ezartzen duen berdintasun eta elkartasun printzipioetan oinarritua, banaketa ahalmen handien duen errenta publiko programan eratzen duelako.

Aurrez gauza horiek argitzea garrantzitsua da, pentsioen inguruko eztabaida, eztabaida ideologikoa delako eta erabat antagonikoak diren kontzeptuak kontrajartzen dituelako:

- Politika ekonomiarekin;
- Alderdi publikoa eta pribatuarekin;
- Banaketa eredu kapitalizazio ereduarekin;

Horregatik argi eduki behar dugu pentsio publikoen inguruan eta horien jasangarritasunaz eztabaidatzen dugunean, argudio ekonomikoak ideologia baten argudioak direla.

Pentsio publikoek, etorkizunean, egiturazko erronka bat dute, Baby Boom belaunaldia, demografia eta biztanleriaren zahartzeagatik. Gertuko etorkizunean pentsio gehiago ordaindu beharko da, altuagoak eta denbora gehiagoan.

Erronka hau konpontzeko bidea, bide politikoa da Estatu Itun baten bitartez, herriaren aberastasunaren zein parte bideratuko den pensio sistema publiko jasangarri eta nahikoa finantzatzera ezarriko duena.

Baina hori galarazten saiatuko diren interes ekonomiko eta politikoak egongo dira. Ez dira berriak, alde batetik, finantza sektoreari lotutako aditu, fundazio eta ikasketa zentroen azterketak, ustezko ikuspegi ekonomizistatik edo teknikitik pentsio publikoen etorkizuna zalantzan jartzen dutenak.

Azpiparratu behar dugu azterketa horiek ez direla inoiz izan aseptikoak beraz orain ere ez dira izango. Era-kunde horien interesak dira ikerketa horien ondorioak markatzen dituztenak, koadro eta datu izugarriean justifikatuta. Interes ekonomikoak dira, eta argi eta garbi erantzuten diote ideologia liberalari. Eta funtsean, irabazi-asmoa besterik ez dago gizarte aurreikuspenaren kudeaketan.

Izan ere, ikerketa horietako bakar batek ere ez dio galdera sinple bati erantzun: gaurkoa baino aberatsagoa izango den herrialde batek zergatik ordainduko lituzke bihar, gaur egun baino pentsio baxuagoak?

Eta horrek, bidegabea izateaz gain, ez du inolako etika politikorik

Beste jarrera batzuetatik ere, zuzenean edo zeharka, zalantzan jarri da sistemaren alderdi kontributiboa, eta, horrekin batera, gizarte eragileek Elkarrizketa Sozialaren esparruan negoziatzeko eta adosteko duten gaitasuna bera. Hori, bereziki Euskadin, pentsio sistema publiko baten defentsarekin zerikusi gutxi edo batere zerikusirik ez duten interes politiko eta sindikalen bultzadarekin. Eta, gainera, askotan ukatu egin

dira aipatu ditugun eta euskal gizartea bezalako gizarte zahartu batean garrantzia berezia duten erronka horiek.

Hala egiaztatu dugu Gizarte Elkarrizketaren inguruko negoziatioetan. 2021 urtean, lehen fasean, Gizarte Elkarrizketa Mahaian akordioa lortu dutenak, pentsioen arloan uztailean, eta azaroan Belaunaldi arteko Ekitate Mekanismoaren garapenarekin osatu dena, oraingoan bakarrik CCOO, UGT eta Gobernuaren arteko akordioarekin, CEOE eta CEPYME kanpo geratu dira. 2023an sindikatu eta gobernuaren arteko akordio berri batek itxi du bigarren fasea.

Bi akordio horien edukietan sakonki sartu gabe (horretarako, sindikatuak dagoeneko garatu du horri buruzko materiala), gai batzuk aipatu behar dira hitz egiten ari garenaren perimetroa argi eta garbi ezartzeko. Horrela, MEI, benetako diru-sarreraren kotizazio sistema, gehienezko oinarriei topea kentzea.

- Sistemaren gaineko jarduera logika bat berreskuratu dute, negoziatioan eta itunean oinarrituta, 2013ko Rajoyren Gobernuaren hitzartu gabeko erreformaren aurrean;
- 2013ko hitzartu gabeko erreforma horren aurrean, neurrien norabidea berbideratu dute, diru-sarrerak indartzearen gainean eraginda eta ez sistemaren gastuaren gainean.
- Eskubide berriak indartu eta eragin dituzte, izatezko bikoteen kasuan alarguntasun arloan berdinketa edo bekadunen kotizazioa.
- Oraingo pentsiodunen erosteko ahalmena bermatu dute eta jasangarritasun faktoreak etorkizuneko pentsiodunen gainean eragiten zuen Damoclesen ezpata ezabatu dute.

Aurrera egiten da genero-arrakalaren aurkako borrokan, hutsuneak integratzeko sistema eta genero-arrakalaren aurkako borrokarako osagarria hobetuz baita kotizaziopeko gutxieneko pentsioen eta kotizazio gabeko pentsioen hobekuntza bera ere.

3. Gizarte aurreikuspenaren hiru zutabeak

Pentsioen arloan zentratuta, Konstituzioaren 41. Artikulutik, hiru zutabetan oinarritzen den gizarte aurreikuspen bat eratortzen da Espainian. Lehenengoan Pentsioen Sistema Publikoa dago, bigarrenean enpleguaren aurreikuspen osagarria eta hirugarrenean aurreikuspen indibiduala.

Oraingoan ez dugu hirugarren zutabea landuko, hau da, aurreikuspen indibiduala. Horrek errenta ertain-altuetan baino ez baitu eragiten, ez du birbanaketa tresna gisa funtzionatzen, eta bere garapenean ez du balio izan errenta gisa osagarri duinak sortzeko, horregatik ez du interesik ikuspuntu sozialetik.

3.1 Pentsio Sistema Publikoa.

Gizarte Segurantzaren lehen zutabeak errenta sortzen ez dituzten egoerak edo gertakizunak hartzen ditu, lana lortu ezinagatik edo lan egin ezinagatik (erretiroa, ezintasuna, langabezia...). Gizarte Segurantzaren estalduren eragina izugarria da eskema honetan: sindikatuak, pandemiaren aurreko une batean, kalkulatu zuen lau pertsonatik batek Gizarte Segurantzaren errenta bermea zuela. Esan gabe doa, beste zerbitzu publiko batzuekin batera, hala nola Osasun Sistema Nazionalarekin batera, azken bi urteetan benetako segurtasun sare bat eratu dela gure historia hurbilean ezagutzen ez genuen egoera baten aurrean.

Gure Pentsio Sistema Publikoa ulertzeko, beharrezkoa da adjektiboak ezartzea, are gehiago komunikabideetan etengabe zarata hotsak entzuten diren une honetan, irakurketa oker gehiegi baitaude kasu batzuetan edo hori desegiteko interes ekonomiko eta politiko gehiegi baita irakurketa politiko alderdikoiei euskarria emateko asmoa.

Sistema publikoaren ezaugarrietako batzuk:

- Derrigorrezkoa eta kudeaketa publikokoa. Gizarte kotizazioak ez dira borondatezkoak, eta sistemaren kudeaketa zuzenean Estatuak egin behar du, ez finantza entitateen bitartez.
- Kontributibitatea, langileen ekarpenak dira sistema elikatzen dutenak gizarte kotizazioen bitartez, proportzionaltasuna mantenduz jasotakoa eta emandakoaren artean.
- Unibertsaltasuna, babes ekintza hori herritar guztiengaino zabaltzen delako, norberaren egoera pertsonala edo soziala aintzat hartu gabe.
- Banaketa sistema da, elkartasun printzipioarekin, hiru dimentsio aurkezten dituena: lurralde arteko elkartasuna, persona artekoa eta belaunaldi artekoa. Zer esan nahi du honek?
 - Gaurko langileen kotizazioak dira gaurko pentsioak eusten dituztenak
 - Eskubide berdintasuna, erresidentzia une eta tokia aintzat hartu gabe.
- Nahikotasuna: pentsio sistema publikoaren bermea eta aurrerapena ongizate-mailan, prestazio duin eta egokien bitartez.
- Kutxaren unitatea: estatua da Gizarte Segurantzaren baliabide, betebeharrak eta prestazio guztien titular bakarra. Asistentzia mailan, autonomia erkidegoek neurriak garatzeko aukera aurreikusten da, hala nola diru-sarrerak bermatzeko sistemak (DSBE Euskadin).

3.2 Gizarte aurreikuspen osagarria.

Gizate Aurreikuspen Osagarriak Konstituzioaren 41. artikuluan du lehen oinarri arauemailea, zeinak hitzez hitz esaten duen” laguntza eta prestazio osagarriak libreak izango direla”.

Beraz, gure legezketasunean aitortutako Gizarte Segurantzaren borondatezko hobekuntzetako bat da. Borondatezko hobekuntzak enpresa borondatearen edo negoziazio kolektiboaren ondorio diren enpresa-be-tebeharrak dira, Gizarte Segurantzaren babes ekintza osatzea helburu dutenak.

Araudian ezartzen da Gizarte Segurantzaren borondatezko hobekuntza erregimena:

- 1.- Prestazioen zuzeneko hobekuntzak,
- 2.- Kotizazio-tasa gehigarriak ezartzea.

Gizarte Segurantzaren borondatezko hobekuntza zuzenek oinarritzko bi ezaugarri dituzte:

- a) Osagarritasuna. Haien prestazioak ez dira izango, inola ere, Gizarte Segurantzaren nahitaezkoak diren prestazioen ordezkoak.
- b) Borondatezkotasuna. Bere ezarpena librea da eta autonomia indibidual edo kolektibotik dator. Enpresaburuaren aldebakarreko erabakitik ere sor daitezkeen arren, ohikoena lan harremanaren iturrien bidez izatea da, lan kontratua eta negoziazio kolektiboa alegia, hitzarmen kolektiboen bidez. (Galiziako Auzitegi Nagusiaren sententzia, 2013ko maiatzaren 21ekoa).

Negoiazio Kolektiboa izan da borondatezko hobekuntzak arautzeko tresna nagusia, Konstituzioaren 37.1 artikuluan gaitasuna konstituzionala du, bai eta araudi orokorrean Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 43.2 artikuluan honako hau dioenean: “Borondatezko hobekuntzak ezartzea, aurreko zenbakian aurreikusitakoaren arabera, Gizarte Segurantzaren ezin izango da kontratazio kolektiborako gai izan”, baita Langileen Estatutuaren 85.1. artikuluan ere, negoziazio kolektiborako eta negoziagarriak diren gaien eskubidea arautzen duena.

Negoiazio Kolektiboan akordio gai izan diren borondatezko hobekuntzak hauek dira beste batzuen artean:

- 1.- Aldi baterako ezintasun osagarria ohiko kontingentzia edo kontingentzia profesionalagatik.
- 2.- Aurre erretiro primak
- 3.- Ezintasun Iraunkor Osoagatik edo Ezintasunagatik Iraunkor absolutuagatik kalte-ordainak.
- 4.- Heriotzagatik kalte-ordainak.
- 5.- Gizarte aurreikuspen osagarria.

Beraz, Gizarte Aurreikuspen Osagarriak gainerako borondatezko hobekuntzen funts eta izaera bera du. Estatuan, pentsio-planak dira horiek ezartzeko tresnak, eta Euskadin, gizarte aurreikuspen osagarriko erakundeak (BGAE).

4. Pentsio planak eta gizarte aurreikuspen osagarriko erakundeak

Pentsio Planak eta BGAE epe luzeko aurrezki kolektibo trena dira biak. Baina ezberdintasun batzuk badituzte:

	BGAE	PENTSIO PLANA (lanekoa)
Ekintza eremua	Euskadi	Estatua
Arautzea eta gainbegiratzea	Euskadi. Eusko Jaurlaritza	Estatua. Ekonomia Ministerioa
Inbertsio-printzipioen adierazpena	Bai	EZ (Erakunde kudeatzailea izango da pentsio-funtsaren inbertsio-politika estrategikoaren printzipioak finkatu eta onartzeko arduraduna).
Izaera Juridiko Propioa	Bai	Ez. Funts batean sartuta egon behar dute nahitaez, eta ekarpenak administratzeko erakunde kudeatzaile bat eskatzen da.
Estaltzen dituen kontingentziak	Enplegu-planek estalitakoez gain, enplegurako laguntza, baliaezintasun-asegurua, familia-laguntzak, amatasuna eta beste batzuk ere estali ditzake.	Erretiroa; ezintasun iraunkor osoa, absolutua eta baliaezintasun handia; heriotza eta biziraupena; mendetasun larria eta mendekotasun handia; eta laguntzak iraupen luzeko langabeziarako.

5. BGAEen euskarri legala

Espainiako Konstituzioan aipatutakotik abiatuta, eta aurreko koadroa garatuz, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan jasotzen dira gizarte babesaren arloko euskal esku-menak.

A) Gizarte Segurantzaren arloan:

Autonomia Estatutuaren 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, EAERI dagokio:

a) Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea, legeriaren araubide ekonomikoa osatzen duten arauak izan ezik.

b) Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoen kudeaketa. 5. xedapen iragankorrak ezartzen du, "Estatutu hau aplikatzeko sortzen den Transferentzien Batzorde Mistoak beharrezkoak diren hitzarmenak ezarriko ditu, Autonomia Erkidegoak bere gain har dezan Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoen kudeaketa, izaera bateratuaren eta elkartasun printzipioarekiko errespetuaren barruan".

B) Gizarte aurreikuspen osagarriaren arloan:

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio EAERI Gizarte Segurantzaren sartuta ez dauden mutualitateen arloan, hargatik eragotzi gabe aseguru pribatua arautu eta gainbegiratzea, zeinaren araudiak oinarrizko izaera duen Espainiako Konstituzioaren 149.11 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Oinarrizko babesari eta kotizazio gabeko pentsioei dagokienez, eskumenak toki-administrazioei eta foru-administrazioei dagozkie.

Beraz, Euskadik eskumen eskusiboak ditu lehen zutabeko oinarrizko prestazioetan (DSBE, EPO...) eta gizarte babesaren bigarren eta hirugarren zutabeetan, prestazio osagarriak gizarte aurreikuspen osagarriko erakundeak erabiltzen direnean. Era berean, lehenengo zutabeetan Eusko Jaurlaritzaren eskumena da Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzea, haren eskumena transferitu gabe baitago.

C) BGAEak:

TBorondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean sartzen dira. Arau honen garapena urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan dago, horrek onartzen du otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua, borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa.

6. BGAEn kontzeptua eta ezaugarriak

Kontzeptua.

BGAEn 5/2012 Legearen definizioa zioen azalpenean bertan dago:

“Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak borondatezko gizarte aurreikuspena gauatzeko sortu ziren, irabazi asmorik gabe eta gizarte segurantzaren araubide publikotik kanpo, eragindako pertsonak ustekabeko edo aurreikus daitezkeen egoera edo gertaeretatik babesteko. Bere ezaugarriak garrantzitsuenak bere xedea edo helburuan zentratu ziren, erretiroa edo baliaezintasuna bezalako gertakizun pertsonaletatik babestea funtsean, irabazi asmorik eza, elkartasuna sustatzen duen izaera asoziatiboa, egindako ekarpenei dagokienez bazkideek dituzten eskubide eta betebeharren berdintasuna, eta gobernu organoen osaera demokratikoak dakarren autokudeaketa sistema”.

Ezaugarriak:

- Erakunde independentea. Berezko nortasun juridikoa du, eta nortasun hori sustatzen duten bazkideena (fisikoak edo juridikoak) ez bezalakoak. Oro har, ez du erakunde kudeatzaile beharko (enplegu planekin ikusten genuen bezala).
- Izaera mutualista. Jarduera printzipioak kudeaketa gardentasuna eta bazkideen gobernu-jardueraren parte-hartze demokratikoan oinarritzen dira.
- Irabazi asmorik gabekoa, entitatearen zein kideena, merkataritza-negozio simulatu bat estaltzen duten dibidendu edo bestelako entregak banatzeko debekua berariaz ezarrita dago baita erakundearen ordezkarien eginkizuna doakoa izateko derrigortasuna.
- Eusko Jaurlaritzak gauzatutako kanpo-kontrol administratiboaren mende egotea, baita antolamendu eta eragiketen inuguruko barne-kontrolen bestelako prozeduraren mende ere.
- Gizarte-aurreikuspen osagarri helburua, inoiz ez gizarte-babesaren lehen zutabearen ordezkaria (pentsioen sistema publikoa).
- Borondatezko izaera, gizarte-babesaren 2. edo 3. oinarriaren parte moduan.
- Kontingentzia zehatzen babesa (erretiroa edo baliaezintasuna, adibidez).
- Aurreikuspen planen bidez antolatzea, horien bitartez ekarpen eta prestazio sistemak antolatu eta arautzeko; BGAEn da, berezko nortasun juridikoa izanik, horiek biltzen eta kudeatzen dituen erakundeak, bere barne funtzionamendu arauen arabera.
- Berariazko lurralde-eremua. Egoitza soziala Euskadin izan behar du.
- Izendapen zehatza. Entitatearen izenaren ondoan agertu beharko da nahitaez “Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak” eta bere modalitatea (enpleguzkoa, banakakoa, elkartua edo bereizi gabekoa).

7. Enplegu BGAEak. Erakunde preferenteak

Aurki ditzakegun BGAEen modalitateak aztertzen hasi gabe, komenigarria izan daiteke horiek aipatzea, gero eztabaida zentratzeko. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak banakakoak, enpleguzkoak, elkartuak eta bereizi gabeak izan daitezke.

Gure jarduera eremua dela eta, enpleguetakoan jarriko dugu arreta, gizarte-babeseko sistemaren 2. zutabea osatzen baitute. Banakakoak, aldiz, bat datoz finantza-erakundeen aurrezki-tresnekin, banakako kapitalizazioari dagozkionak. Horiek aurrerago aipatuko ditugu, baina oraingoz interes sindikalik ez duten erakundeak direla baino ez dugu azpimarratuko.

Eusko Jaurlaritzak honela definitzen ditu enplegu BGAEak:

“Kideek bazkide babeslearekin{enpresa} laneko lotura daukatenean, edo funtzionario edo estatutu-peko langileen kasuan, edo bazkide langileak edo lanekoak direnean sozietate kooperatibo eta lan-sozietateen esparruan zerbitzu harremana, baldin eta negoziazio kolektiboaren, enpresa-itunaren edo enpleguaren aldebakarreko erabakiaren bidez sartu badira.

Bestalde, Enplegu BGAEei dagokienez, 5/2012 Legeak, 14. artikuluan, Gizarte Aurreikuspen Osagarriko eredu zehatz baten aldeko apustua egin zuen, Lehentasunezko BGAEen figura sortuz. Lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planak kudeatzen zituzten erakundeak ziren, eta honako baldintza hauek dituzten planak dira:

- Inor ez diskriminatzeko printzipioa. Gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planetan, gutxienez urtebeteko antzintasuna daukaten langile guztiek izan behar dute bazkide osoak izateko aukera,
- Gutxienezko estaldura: erretiroa, heriotza eta baliaezintasuna edo ezintasun iraunkorra, lan-harremana amaitzea baldin badakar.
- Alde biek egin beharreko ekarpena. ekarpenak enpresa eta langileen artean artean egin beharko dira.
- Prestaciones. Se percibirán en forma de renta vitalicia o renta financiera con una duración mínima de quince años.
- Biziarako errenta edo finantza-errenta modura aitortu eta ordainduko dira, azken honek gutxienez hamabost urtez iraun beharko du.
- Gainera bestelako baldintzak ere badituzte hala nola erreskatea ezinezkoa izatea edo mugikortasun mugatua (lehentasunezko beste erakunde batzuetara soilik) lehentasunezko aurreikuspen-planak jarraipen-batzorde paritario bat eratzea aurreikusi beharko du.

8. Datuetan: Euskadin Gizarte aurreikuspen osagarria

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken memoriaren arabera, 2021 urteari dagokiona, Euskadin aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ondarea, gutxigatik, 29 milioi eurotik gorakoa da. Hori EAeko BPGaren % 37,62 da, baina Espainiako BPGren % 10 baino iristen ez den zifra da. Euskadiko aurrezki-maila horren zati handi bat enpleguko BGAEei zor zaie, horiek negoziazio kolektiboaren emaitza izan dira, sektorekoa zein enpresakoa, eta sektore eremuan Elkarkidetza, Itzarri eta Geroa bezalako erakundeak sortu dira, lehenengo biak sektore publikoan eta hirugarrena pribatuan.

Enpleguko BGAEetako bazkide kopurua 513.000 langile ingurukoa da 2021ko abenduan. Lagun-Aro BGAEak ere zeregin garrantzitsua du aurrezki-maila hori lortzeko, Mondragon Taldeko kooperatibetako langileen pentsioak estaltzen baititu Gizarte Segurantzaren ordez. Enplegu modalitateko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Erakundeen aurrezki aurrezpen osoaren % 54,4 da.

Banakako sistemek, BGAE indibidualek, Euskadin % 75eko ezarpena dute errenta altu eta ertain-altuetan, eta oso portzentaje txikian geratzen dira errenta ertain edo ertain-baxuak dituztenen artean. Hau da, errenta altuek bakarrik dute banakako aurrezki-rako gaitasuna, errenta erabilgarria. Eta hori azpimarratzea garrantzitsua da. Langileek osatzen dute gizarteko nukleorik ahulena. Hori dela eta, banakako kapitalizazio ereduaren aurrean, gizarte- kohesioa ahalbidetzeko eta desberdintasunetan sakontzea saihesteko, garatu beharreko tresna Gizarte Aurreikuspen Osagarria da, gure sistemaren 2. zutabea, osagarria eta ez ordezkioa, eta hori enplegu-sistemako BGAEak ezarritz baino ezingo litzateke egin.

Gogoratu behar da, halaber, Euskadin garapen oso nabarmena izan duten enpleguko BGAEek, modu desberdinean egin dutela. Sektore publikoan langileen ia % 100ari ematen dio estaldura. Sektore pribatuan ere lurraldeen arteko desoreka dago. Gipuzkoan sektoreko akordioen bidez garatu da, hau da, probintziako hitzarmenen bidez, eta jarduera-sektore gehienei eragiten die, eta sektoreko hitzarmen baten eraginpeko langileen % 85 ingururi. Hala ere, Bizkaian bi sektoreko hitzarmen baino ez daude, aurreikuspen-plan bat adostuta dutenak, eta Araban bat ere ez, eta lurralde horietako ezarpena sindikatu-ezarpena duten enpresa handien eremura mugatu da.

Bestalde, ordezkapen-tasa, argi eta garbi nahikoa ez izateaz gain, oso desberdina da jarduera-sektoreen artean. Sektoreko hitzarmen batzuetan, ekarpena % 4,6 ingurukoa da, eta beste batzuetan, berriz, % 0,4koa, argi eta garbi nahikoa ez dena. Helburua gehienez ere pertsona aktibo gisa jasotako azken soldatara iristea bermatzea zen. Hau da, prestazio osagarriak jarduneko azken soldataren % 20 inguru estali behar zen, eta, horretarako, soldataren % 7 kotizatu beharko litzateke 35/40 urtean. Datu horiek agerian uzten dute ez dela arrazoizkoa, batzuetan egiten den bezala, gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarrien garapena pentsio-sistema publiko osasungarri eta boteretsu baten existentziarekin kontraesanean egotea.

Izan ere, azken soldatarekiko pentsioen ordezkapen-tasa % 75 ingurukoa dela kontuan hartzen badugu, pentsio publikoek, lan-jarduera utzi duten langileen ordezkapen-errenten funtsezko zatia diren arren, tarte nabarmena uzten dute gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarrien eta, bereziki, enpleguko BGAEen sustapen orokorrerako.

9. Aurreikuspen sozial osagarriaria eta BGAEei buruzko eztabaida Euskadin

Azkenaldia bi diskurtso desberdin daude enplegu aurreikuspenaren inguruan:

1. Porrot egin duela diotenak. Egia da estatuko pentsio-planek garapen txikia izan dutela, baina horrek zerikusia du soldata baxuekin, prekarietatearekin eta enpleguaren behin-behinekotasunarekin.
2. Enpleguko BGAEak pentsio publikoen etsai direla diotenak, pentsio publikoak pribatizatzeko tresna direlako. Ez da oso sendoa, eta ez dirudi dakienik, kapitalaren eta lanaren arteko gatazkan, soldata geroratua ere errenta-eztabaida dela. Enpresek eta administrazio publikoek aurreikuspen-planei egi-ten dizkieten ekarpenak soldata geroratzat hartzen direlako.

Gizarte-aurreikuspen osagarriari buruzko eztabaida, eta, bereziki, enpleguko BGAEei buruzkoa, batera egin behar da pentsio publikoekin dagoen edo ez dagoen konpromiso politikoaren mailarekin eta pentsio horien bilakaerari, nahikotasunari eta iraunkortasunari buruzko eztabaidarekin. Izan ere, BGAEekin batera bizi diren pentsio publiko nahikoak egon daitezke, eta, alderantziz, pentsio publikoek oso estaldura eskasa izan dezakete, BGAErik ez badago ere.

Illo horretan, interesgarria da Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluko lehendakari Tomás Arrietaren go-goeta: "... enpleguaren borondatezko gizarte-aurreikuspena kontzeptualki eta tradizionalki lotuta dago, batez ere gizarte moderno, eraginkor eta zentzuz orekatuetan kohesioa mantentzeko eta ziurtatzeko helburuarekin.

Beraz, plan osagarrien aldeko apustuak ezin du inola ere eragin eremu publikotik sektore pribaturako babesaren desplazamendua, ezta partziala bada ere, ezta hura gutxitzea edo ahultzea ere. Hala eta guztiz ere, argi dago sistema publikoen ordezkapen-tasak, kasu eskuzabalenetan ere, ez direla nahikoak soldata-ordainsarien baliokideak diren errentak sortzeko. Eta, era berean, agian ikuspegi ideologikoago batetik begirata, enplegu-sistema osagarri eustea, ordainsari geroratuen bidez finantzatua eta irismen orokorreko itun kolektiboetan artikulatua, arrazoizko aukera da arrakala hori ezabatzeko edo murrizteko eta pertsonen etorkizuna bermatzeko “.

Horregatik, argi eta garbi azpimarratu behar da enpleguko gizarte-aurreikuspen osagarria pentsioen sistema publikoa indartzera bideratu behar dela, eta ez duela inoiz ordezko bokaziorik izan behar, ez eta baliabide instrumental hutsa izan behar ere, sistema publikoen estaldura txikiko egoeren alternatiba izatea baino ez baitu helburu.

Helburu horiekin, pentsioen sistema publikoaren defentsarekin eta BGAEen izaera osagarriarekin, ez ordezkorekin, borondatezko gizarte-aurreikuspena eta aurreikuspen osagarria garatu da Euskadin.

Beste era batean esanda, enpleguko BGAEen ezarpen-maila alde batera utzita, pentsio publiko nahikoak izateko gakoa da horretarako borondate politikoa egotea. Horri dagokionez, gogorarazi behar da pentsioen, inklusioaren eta Gizarte Segurantzaren arloan, koalizio-gobernuaren programak, besteak beste, bide bat seinalatzen zuela, eta bide horretan eragile sozialok rol protagonista bat genuela, eta oraindik ere badugu.

Hala adierazten da lehen aipatutako akordioekin, pentsio sistema publikoaren nahikotasuna eta etorkizuna bermatzera zuzenduta diru-sarrerak indartzeko neurriekin.

Horri elkarrizketa sozialaren esparruko beste jarduera batzuk gehitu behar dizkiogu, hala nola lan-erreforma

edo Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren igoera, gure pentsioen sistema publikoan eragin nabarmena dutenak. Sistemaren finantzaketaren hazkundera lan-baldintza duinak, kontratazio egonkorra eta langileen erosteko ahalmenaren aurrerapena dituen lan-merkatu batetik hasi da marrazten, eta horrek gizarte-kotizazioetan isla izan du.

Azken batean, pentsio-sistema publiko solidario, banatzaile, iraunkor eta nahikoa baten alde egiten duten neurri multzo bat garatzean datza.

10. Ondorioak

- Gizarte babesaren oinarria pentsio sistema publikoak izan behar du. Gizarte Aurreikuspen Osagarria orokortzeak ezin du bermatu, eta ez du bermatu behar, pentsioen kotizaziopeko sistemaren antzeko es-taldurarik. Beraz, Gizarte Aurreikuspen Osagarriak Gizarte Segurantzaren sistema osagarri izan behar du, eta inolaz ere ordezkoa.
- Enplegu, ordainsari geroratzat hartzen diren ekarpenen bidez mantentzen dira (soldata geroratu). Ad-ministrazio publikoen kasuan, ordainsari geroratu horiek Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 29. artikuluan arautzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 481/2017 Epaiarekin bat etorri (Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salaren 2021eko apirilaren 8ko 483/2021 Epaiak berretsita), soldata-masaren parte dira.
- Borondatezotasuna ezartzeko modurik ohikoena lan-harremanen iturrien bidez da, eta negoziazio ko-plektiboa da tresna nagusia. Horrela garatu da euskal administrazio publikoetan. Hitzarmen kolektiboetan jasotako langileek uko eginez gero, ordainsari geroratu desagertu egingo da eta ez da zuzeneko or-dainsari bihurtuko.
- Gizarte aurreikuspen osagarria, Gizarte Babesaren 2. zutabeak (profesionala eta kolektiboa) eta 3. zu-tabeak (indibiduala) osatzen dute. Bigarren zutabearen aurkitzen ditugu Enpleguko BGAEak. Hirugarren zutabeak, banakakoak, herrialde batean aurrezteko sistema gisa joka dezakeenak, ez du interesik ikus-pegi sozial batetik, azken helburua aurrezki fiskala duen sistema bat delako. Ez du inolako eraginik errenta baxuetan, eta haien mozkinak errenta handietara bakarrik iristen dira
- Garatu beharreko tresna bigarren zutabea da, bere izaera kolektiboagatik eta bere garapena orokortzeko aukera ematen duelako errenta ertain eta ertain-baxuak dituzten langileen artean, bestela ezingo luke-teelako.
- Zerga-ahaleginak, egotekotan, enpleguko BGAEak sustatzera bideratu behar dira, eta ez banakakoak. Laguntza fiskalak soilik justifika daitezke interes sozial bat badago, kasu honetan errenta txikiak dituzten langileen artean orokortzea dena.
- Pizgarriak, enpleguko BGAE baten bidez izan ezean, errenta eskasak izateagatik erretirorako aurreztu ezingo luketen pertsonentzat izan behar dira.
- Langile autonomoen kasuan, edozein laguntza edo pizgarri fiskalak berekin ekarri beharko luke, aldi be-rean, Gizarte Segurantzari beren diru-sarrera errealeagatik egindako kotizazioak ordaintzeko baldintza.
- Pizgarri fiskalak prestazioak errenta gisa jasotzera bideratu behar dira, eta, beraz, kobrantza-modalitate horrek zerga-tratamendu hobea izan behar du kapital gisa jasotzeak baino.
- Inbertsioen kapituluan, Inbertsio Sozialki Arduratsua garatu behar da, erakundearen konpromiso gisa, BGAEen Legeak ezartzen duenetik haratago. Inbertsio Sozialki Arduratsua Enpleguko Aurreikuspen So-zial Osagarriaren bidez garatzen da, batez ere. Lortu nahi den helburu nagusia langileen aurrezki epe luzera iraunkorra izatea eta Enpresen Gizarte Erantzukizuna sustatzea da

Ohar bibliografikoa:

Lan hau egiteko, kontuan hartu dira Gizarte Segurantzako Ministerioak bere web orrian emandako prestakuntza-baliabideak, bai eta Eusko Jaurkitzak BGA Eetako gobernu-organismoetan izendatutako pertsonentzako prestakuntzaren esparruan garatutako prestakuntza materialak ere.